

Udal Ordenantza, horrek arautzen ditu: ondorio gehigarriak sortzen dituzten Ostalaritzako Establezimenduak eta Dibertimenduzko Jolas Aretoak Kokatzeko, Instalatzeko eta Ikuskatzeko baldintzak.

Zioen azalpena

Europar Parlamentuko 2006/123/CE eta 2006ko abenduaren 12ko Zuzentarauan dagoen esan bidezko aginduari kasu eginez, hori Barne Merkatuaren zerbitzuei buruzkoa da, eta horren arabera, 2009ko abenduaren 28a baino lehen Administrazio guztiek beren arautegia egokitu behar dute, eta kontuan izanik baita, Euskal Autonomia Erkidegoko Lurzoru eta Hirigintzako ekainaren 30eko 2/06 Legean ezarritakoa, Lurralde Politika Arloak aipatu Zuzentarauaren eta Euskal Autonomia Erkidegoko Lurzoru Legearen eraginpean egon daitekeen udal arautegiaren azterketa egin du, kokapen-askatasuna egikaritzeari eta zerbitzuen zirkulazio libreari buruz, izan ere ahalik eta gehien murriztu behar baitira prozedura eta tramiteak, eta ezinbestekoak diren horiek bakarrik ahalbideratu behar baitira, eta horien artean ez dadila gainjarririk egon lortu behar da, izan ere, guzti horrekin administrazio-simplifikazioa areagotu nahi baita.

Zuzentarau hori irakurri ondoren, kokapen-askatasunari eta zerbitzuak eskaintzeko askatasunari dagokion irizpidea ezartzen da Izaera orokorrekin, arautegi erregulatzailerak ezingo du baimen-erregimenik (baimenak) ezarri, ez badaude interes orokorreko arrazoiengatik justifikatuak.

Zuzentarauak baimen-erregimena erabiltzeko aukera ematen du interes orokorreko ezinbesteko arrazoiak ematen den kasuan, hala nola, ingurumenarentzat iraunkorrak izan daitezkeen ondorioak itxaroten badira, edo afektaturiko hirugarrenen interes legítimoak daudenean isiltasun positiboarengatik, eta kasu horretan, jabari publikoa okupatzeko emakida-erregimena aplikatu daiteke. Ondorioz, ostalaritzako jarduerak beren erregimena mantenduko dute, 3/98 Legean, Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurumena Babesteko Lege Orokorra, ezarritako jarduera-baimena izan beharko baitute, eta hori horrela, Terrazek baimena beharko dute, udal jabari edo erabilera publikoaren aprobetxamendu pribatiboa egiten dutelako.

Horrek ez dio eragozpenik egiten, bi Ordenantzen analisi eta azterketa egin ondoren, zerbitzu-jarduera horiek ezartzeko ahalik eta mugarik gutxiena jarriko duten aldaketak proposatzeko, eta badago ere testu bakar batean moldatzeko aukera ere, jarduera osagarriak baitira.

Ostalaritzako Establezimenduen Ordenantzari dagokionez, jadanik 1985. urtetik, mota horretako establezimenduak jartzeko aukera, jarduera horien arteko distantzietara mugatua egon da, aurreikusitako Taldeetakoak ziren kasuen arabera, horien hurbiltasunak sortzen zituen ondorio gehigarriak saihesteko helburuz. Momentu hauetan, establezimendu horien kopurua eta banaketa aztertu ondoren udalerrian, egiaztatu

ahal izan da ezen, nahiz eta badauden saturatuak daudela pentsa dezakegun eremuak, udalerriko gainontzeko tokietan dagoen ezarpen-mailaren arabera, badaudela gutxieneko distantzien muga aplikatzetik salbuetsiak gera daitezkeen eremu zabalak .

Aipamen berezia egin behar zaio jatetxeen ezarpena gehitzeko beharrari, bereziki erdigunean, eta hori horrela, gutxieneko distantziaren muga kentzea proposatzen da jarduera mota horretarako, udalerrri osoan.

Beste alde batetik, udalaren asmoa da, baita, terrazak jartzeko helburuz, erraztasunak ematea, beriziki udalerriko plazetan, horri izan ere, oso harrera abegikorra egin baitio ostalaritzako gremioak, establezimendu horiei begira, zerbitzuaren kalitatea eta jarduera ekonomikoa hobetzen dela kontsideratzen baitu.

Nolatan terrazak jartzeko baimena, dagokion ostalaritzako establazimenduari, lotuta doan zuzenean, eta tramiteak etabar sinplifikatzeko helburuari begira, proposatzen da ezen, Ostalaritzako Terrazen Funtzionamenduko Kokapen, Instalazio eta Ikuskapen Baldintzak arautzen dituen Udal Ordenantzaren artikulatua, "Ostalaritzako Establezimenduak Arautzeko Udal Ordenantza" berriaren Kapitulu bat gehiago izan dadila. Horregatik, eta Terrazen gaur eguneko Ordenantzako baldintzak eguneratu ondoren, proposatzen da ezen, aldatutako aipatu arauketa Ostalaritzako Establezimenduen arauketa barruan sartua izan dadila.

Ostalaritzako Establezimenduak Arautzen dituen Udal Ordenantza hau aplikagarria izango da Basauriko Udal hori dagokion lurralde eremuan, eta ez dio kalterik egiten azaroaren 30eko 2414/1961 Dekretuan ezarritakoari, horren bidez garatzen baita Jarduera Gogaikarri, Osasungaitz, Kaltegarri eta Arriskutsuen Araudia, eta Osagarriak eta bateragarriak diren beste Xedapenetan ezarritakoari, abuztuaren 17ko 2816/1982 ED-ak onetsitako Jarduera Jolasgarrien Ikuskizun Publikoko Poliziari dagokion Araudi Orokorra, ekainaren 11ko 171/1985 Dekretua, horren bidez onetsi baitziren izaera orokorreko arau teknikoak, zeinak aplikagarri diren jarduera gogaikarri, osasungaitz, kaltegarri eta arriskutsuetan, horiek egoitzazko hiri-lurzoruan kokatu behar direnean, eta azaroaren 10eko Ikuskizun Publiko eta Jarduera Jolasgarrien 4/1995 Legea, eta etokizunean eman daitezkeen jerarkia bereko edo garaiaigoko xedapenak.

Ordenantza honek arautuko du udal jarduera, establezimenduen kokapen, instalazio, funtzionamendu eta ikuskapenari dagokiona, hain zuzen 3. artikuluan sailkatutako Taldeetan daudenena, hots: Jatetxe, Kafe, Taberna, Bodegoi, Kafetegi, Whiskeri, Dibertimenduzko Jolas Areto, Diskoteka, Festa Areto, Zinema Areto izenarekin ezagututako jardueretara dedikatzen direnena, eta baita izen beretsuko gainontzeko jardueretara dedikatzen direnena ere. 3.

1. artikulua.- Xedea

Ordenantza honek hurrengo xedea du:

- a) Hirigintza arloan, ostalaritzako erabilera izan dezaketen lokalen erabilera arautzea, udalerriko edozein motatako lurzoruan koka daitezkeenak, eta jadanik saturatuak dauden zenbait eremutan ostalaritzako lokal horien espezializazio-prozesuari galga jarri, eta ordainetan, hiri-sarean desiragarri den erabilera aniztasuna bilatzea. Modu horretan, alde batetik, zerbitzuen aniztasunari bidea irekitzea, eta bestetik, ostalaritzako erabilerak pisua txikiagoa duen eremutan, aipatu erabilera izango duten lokal kopuru handiagoa jartzeko aukera zabaltzea, bereziki, jendea biltzen den tokietan, hala nola, udalerriko plazetan.
- b) Beharrezkoa da udalak neurri zuzentzaileak hartzea, giza harremanetan eta aisialdi sortzailearen baitan ohitura berriak ahalbideratzeko, eta baita, mota horretako establezimendu publikoen gehiegizko pilaketak sor ditzateken oihartzunezko ondorio gehigarriak prebenitzeko.
- c) Terrazen instalazioa bultzatzea, bereziki, udalerriko plazetan, eta horrekin, establezimendu horiek beren zerbitzuari dagokion alternatiba berri bat izateko, eta jarduera ekonomikoa hobetzeko aukera izango dute.
- d) Udalerrian jatetxeak jartzeari bultzada ematea, eta mota horretako establezimenduen artean jarrita dagoen distantziaren muga kentzea.
- e) Halaber, Ordenantza hau indarrean jartzearekin eta horren zabalkudearekin, jarduera hauetako pertsonak, partikularrek eta sustatzaileek, lehenengo momentutik, jakin ahal izango dituzte aplikatuko zaizkien errekerimentu eta baldintzak, eta horrela, Ordenantza honek eskatzen duen kokapena eta finantzazioa aztertzei aukera izango dute.

2. artikulua.- Aplikazio-eremua.

Udal Ordenantza hau 3. artikuluan eta antzekoetan bildutako jarduera guztietan aplikatuko da, udalerriko Hiri Lurzoruan ezarriko direnetan, hala ere, salbuetsiak geratuko dira Administrazio Publikoek sustatutako ostalaritzako jarduerak, horiek izan ere, Ordenantza honen aplikazio-eremutik kanpo baitaude.

3. Artikulua.- Ondorio gehigarriak eragitearren, sailkatu egiten diren jarduerak

3.1. Arau honen eraginpean egongo dira hurrengo taldeetan sailkatutako establezimendu publikoak:

I. eta II. TALDEAK: Talde honetan sartuko dira, beren jarduera edo kokapena dela eta, ondorio gehigarriak sor ditzaketen establezimenduak, nola diren, edozein motatako edariak saltzen dituztenak, janariak prestatu, prestatutakoak edo erdiprestatuak saldu, maneiatutako jangaiak saltzen dituztenak, etab. hala nola:

I. TALDEA

JATETXEA, ERRETEGIAK EDO ANTZEKO IZENA DUTENAK

II. TALDEA

KAFETEGIAK ETA TABERNAK

KAFETEGIAK ETA TXOKOLATEGIAK

TABERNAK, BODEGOIAK, BODEGAK, BODEGATXOAK

SAGARDOTEGIAK, TXAKOLINDEGIAK, GARAGARDOTEGIAK

PIZZERIAK, HANBURSATEGIAK, OGITARTEKO ETA OILASKOEN SALMENTA, EDO ANTZEKO IZENA DUTENAK

JENDEARENTZAT IREKITA DAUDEN TXOKO ETA ELKARTE GASTRONOMIKOAK

III. TALDEA. Talde honetan, aurreko paragrafoan adierazitako produktuen salmentara dedikatzen direnak sartuko dira, baina isteko ordutegia goizeko ordubietatik aurrera dutenak lanegunetan, Eusko Jaurlaritzako Barne Sailak ostalaritzako establezimenduen iste-ordutegiari buruz ezarria daukanaren arabera, hala nola:

TABERNA BEREZIAK , A eta B kategoriakoak

WHISKITEGIAK

KLUBAK ETA TABERNA AMERIKARRAK

PUBAK

DISKO-TABERNAK

TABERNA IRLANDARRAK EDO IZEN BERETSUKOAK

IV. TALDEA

DIBERTIMENDUZKO JOKO ARETOAK, INTEAKTIBOAK ETA BILLARRAK
BINGO ARETOAK, KASINOAK, JOKO ARETOAK, EDO IZEN BERETSUKOAK

V. TALDEA.-

DISKOTEKAK ETA KARAOKEAK
DANTZALEKUAK
ZINEMA ARETOAK
KAFETEGI-ABESTIAK, KAFE ANTZOKIAK, FLAMENKO-TABLAK EDO IZEN BERETSUKOAK

3.2.- Baldin eta establezimendu bat bi taldetan barne sartuta badago, arautegirik murriztaileena aplikatuko da, distantziei dagokion heinean, zeinak hurrengo artikuluan adierazten diren.

3.3.- Establezimenduak duen izenaren arabera, aurreko artikuluan adierazi diren taldeen barnean ez bada sartzen establezimendu hori, distantziak zehazteko orduan, jardueraren deskribapena edukiko da kontuan, hain zuzen, Txostenean agertzen den deskribapena, eta ondoren, antzekotasunari jarraiki, egokitu diezaiokeen talderen barruan sartua izango da ofizioz.

4. Artikulua.- Gutxieneko distantziak eta ordutegiak

4.1. Establezimenduen artean, bakoitzaren taldeak agintzen duen arabera, egon behar duen **gutxieneko distantzia**, Ordenantza honetan **“saturatuak”** (Hiri Lurzoru Egoitzazkoaren barruan jasotakoa) bezala izendatuak izan diren eremuetan,

- I. TALDEA.- Mota horretako jarduerak indartzeko neurri bezala, establezimendu horientzat ez da distantziaren mugarik ezartzen, ez beren artean eta ezta ere Talde desberdinekoak direnen artean, baina hala ere, I. Taldeko Jatetxe horietako barraren luzera mugatzen da, eta hedapen lineala, gehienez, 3,00 m.koa izango da.

- **II. TALDEA.-** 40 metro aipatu taldedoak diren establezimenduen artean, eta distantzia bera talde honetako eta beste taldekoen artean.
- **III. TALDEA.-** 100 metro Talde honetako establezimenduen artean.
- **IV. TALDEA.-** 150 metro Talde honetako establezimenduen artean.
- **V. TALDEA.-** 200 metro Talde honetako establezimenduen artean.

4.1.1.- Eremu saturatuetan, III., IV. Eta V. Taldeetan barne dauden eta II. Taldean dauden jardueren arteko distantzia 40 metrokoa izango da, eta udal barrutiko gainontzeko eremutan, askatasuna egongo da distantziari dagokionez. Hala ere, ez da gutxieneko distantziaren mugarik egongo jardueren kategoria aldatzen denean, baldin eta Ordenantza honi onespena ematen zaionean, jadanik eremu saturatuetan, ezarrita badaude.

4.1.2.- Aurreko puntuan zehaztutako gutxienezko distantzien betetze-gradua erabakitzekeo, Udal Zerbitzu Teknikoek “in situ” neurtuko dute distantzia, eta horretarako hurrengo irizpideak edukiko dituzte kontuan:

4.1.2.1.- Distantzien neurketa biderik laburrenetik egingo da.

4.1.2.1.- Instalatu nahi den establezimen baten eta jadanik funtzionamenduan dagoen lokal hurbilenaren arteko distantzia neurtzeko orduan, kasu bakoitzean hartuko den lerroa honako hau izango da: hasiera puntua, jadanik baimendutako jarduerak okupatzen duen lokaleko fatxadaren mugagunean egongo da, hain zuzen ere, eskatu berriaren establezimendutik gertuen dagoen aldetik hasita, eta amaiera berriz, instalatu nahi den jardueraren lokaleko fatxadaren muga egongo da, hain zuzen ere, jadanik kokatua legokeenaren alderik hurbilenetik neurtuta.

Neurketak egiteko orduan, establezimendu bateko fatxadan muga egingo duten gunek bezala, hurrengoak hartuko dira, hots, lokalaren perimetroak eraikinaren fatxadarekin bat egiten dueneko gunek.

Ondorio horietarako “bide” bezala hartuko dira, kaleak, galtzadak, plaza eta bideak, edozein direlarik ere horiek, iraunkortasunez jabari publikoak direnak, eta horrelakorik ez legokeen kasuan, jabari edo erabiler publikoko lursailak, horietatik oinezkoak igaroko liratekeen kasuan.

“Fatxada” bezala hartuko dira lokalaren edo lokalen konpoko paramentu guztiak, eta horiek fatxada batenak direla joko da baldin eta haien artean ez balego jarraikortasunik.

4.2.- Murrizketarik gabe gutxieneko distantziarengatik Ez da ezarriko I. Eta II. Taldeetan barne sartutako ostalaritzako erabilera duten lokalen distantziari dagokion mugarik, Ordenantza honetan “saturatuak” bezala tipifikatu diren eremuetatik kanpo dauden zonetan, horiek I. Eranskinean grafikoki adierazitakoak dira. Hala ere, gutxieneko distantziengatik murrizketak ezartzen dira III., IV. Eta V. Taldeetan barne dauden ostalaritzako establezimendu motakoetan, nahiz eta saturatutako zonetan kokatuak egon.

4.3.- Ordutegiak.- Eskuduntza duen organoak erabakitakoak izango dira (Eusko Jaurlaritzako Barne Saila).

5. Artikulua.- III., IV., V. Taldeentzako baldintza bereziak

Mota horretako establezimenduak instalatu nahi diren lokaletan, horiek hurrengo gutxienezko baldintzak bete beharko dituzte:

5.1.- Lokalen edukiera publikoa (aforoa) Eraikuntzako Kode Teknikoan adierazitako parametroetatik abiatuta kalkulatu da, zehazki, SS-Segurtasuna deritzon Oinarrizko Dokumentuan, sutea izango litzatekeen kasuan, edo horren ordezkotako arauan adierazitako liratekeenetik.

Establezimenduetan, jendeak ikusteko moduan eta lehentasunezko tokian egongo da adierazita, lokalaren gehienezko aforoa.

III., IV. Eta V. Taldeetako establezimenduetan, eta gainontzeko Taldeetan, horien okupazioa 300 pertsonetik gorakoa denean, jardueraren titularrak, lokalean momentu bakoitzean, benetako aforoa kontrolatzeko modua eduki behar du, eta hori horrela, Udaltzaingoak segituan izan dezan aipatu datua edozein momentutan.

5.2.- Irteera kopurua eta horien kokapena. Indarrean dagoen EKT-ean (Eraikuntzako Kode Teknikoa) ezarritakoa eduki behar da kontuan, horri dagokion Oinarrizko Dokumentuan OD-SS (Segurtasuna Sutea denean) ezarritakoa.

Ateak irteerako norabidean irekiko dira, eta barnealdean egokiro adierazita egon behar dute honako hitz hauekin “**salida-irteera**”, bestalde, irekitzekoan ez dute bide publikoa hartu behar, eta horretarako, fatxadaren planoari dagokionez egokiro atzeraemanak ezarri behar dira.

5.3.- Lokalaren barnealdean egin daitezkeen pasiloek ezingo dute, inoiz, **1,20** metro baino zabalera estuagoa izan.

5.4.- Lokal hauetako zorutik sabaira doan altura librea **2,80** metro neurrikoa edo hori baino altura handiagoa izango da solairu guztietan, solairu horietan ez badira behintzat biltegi eta/edo komunak bakarrik jartzen, non gutxieneko **2,20 m**.ko altura librea onartuko den.

6. Artikulua.- Higiene-osasunezko baldintzak

6.1. Komun publikoak.- Gai horri buruz indarrean dagoen arautegian ezarritako edukiko da kontuan, eta gutxienezko hau ezartzen da:

a).- Jendeari eskainitako eremuaren azalera erabilgarria 300 m² artekoa, edo horren zatikia denean: bi komun, bata gizonezkoentzat eta bestea emakumezkoentzat, horietako bat mugikortasun murriztua duten pertsonen erabilerarako egokitua.

b).- 300 m² baino gehiago: Bikoiztu egingo dira aurreko atalean adierazitako zerbitzuak.

Bainugela horiek egokiro aldenduak eta isolatuak egongo dira, jendearentzat irekita dagoen gainontzeko aretoetatik, eta aurrealdean atondo bat jarri beharko da.

6.2.- Aireztatzea.- Jarduera horiek egiten diren lokalen barnealdean sor daitekeen aire bero, biziatsu edo arrarifikatuaren berritzea aire-egokitzapeneko ohiko sistemen bidez egingo da, eta berritzeko kadentzia erabakitzeke orduan, establezimenduak duen edukiera edukiko da kontuan, eta aire berritze hori inolako enbarazurik sortu gabe egin behar da. Indarrean dagoen EKT-ean (Eraikuntzako Kode Teknikoa), horri buruzko Oinarrizko Dokumentuan DB-HS (Osasungarritasuna), ezarritakoa bete beharko da.

6.3.- Sukaldea.- Sukalde gisa erabiltzen den lokalak 4 m² baino azalera handiagoa duenean, kea material erregaitzeko hodi bidez atera beharko da, eta hodi horrek eraikinaren estalkitik gora 2 metroko altuera izango du, eta horretarako bestalde, ezingo dira eraikinak aireztapen arrunterako eduki ditzakeen hodiak erabili.

7.- Suteen aurkako babesa.

Bete beharrekoa da, edozienetara ere, indarrean dagoen Oinarrizko Dokumentuko OD-SS (Sute kasuan Segurtasuna) EKT (Eraikuntzako Kode Teknikoa), eta jadanik dauden eta etorkizunean egon daitezkeen xedapen osagarriak bai udal eremukoak bai eremu nagusiagokoak betetzea.

Baita ere, Ikuskizun eta Dibertimenduzko Jardueren gaineko Polizia Arautegi Orokorra bete beharko da, hori abuztuaren 27ko 2816/1982 E.D. bidez onetsi zen, eta jadanik dauden eta etorkizunean egon daitezkeen xedapen osagarriak, horren Erenaskineko Izendegian jasotako Ikuskizun eta Jarueri afektatzen dien adinean. Baita, kontuan hartu beharko da Eusko Jaurlaritzaren Lehendakariitzako 4/95 azaroaren 10eko Legeak erabakitakoa, horrek arautzen baititu Ikuskizun Publikoak eta Dibertimenduzko Jarduerak.

8. artikulua.- Isolamenduko neurriak

Mota horretako establezimenduetan, horma, sabai eta zoruek, indarrean dagoen legerian estipulatutakoa betetzea bermatuko duen isolamendua eduki beharko dute, hain zuzen ere, ingurugiroa babestearekiko buruzkoa, zarata eta bibarazioaren aurkakoa.

Nolanahi ere, jarduera horiek lizentzia eskatzeko orduan indarrean dagoen arautegian xedatutakoa bete beharko dute, higie eta osasun balidintzak eta ke irteerak (EKT Osasungarritasuna (OD-HS), suteen kontrako babesa (EKT OD-SS), segurtasun baldintzak EKT Segurtasun Baldintzak (OD-SU), isolamendua EKT zaratari aurre egiteko babesa (OD-HR), irisgarritasun eta mugikortasun gaiei dagokienez (68/2000 ED), bai eta aplikatu litezkeen gainerako arauetan adierazitakoa ere.

9. Artikulua.- Eskarien lehentasuna

Saturatuak daudela izendatu diren eremuen barruko kasuetarako, eta II., III., IV. eta V. Taldeen barruko jardueretarako, eskaria eginga izan dela ulertuko da, baldin eta aurkeztutako dokumentazioa zuzena izan bada espedientearen tramiterako onartua izateko, eta hori horrela izango da, baldin eta Udal Zerbitzu Teknikoek eginga izan beharko duen hirigintzako txostena aldekoa suertatu bada.

Baldin eta lokal baterako lizentzia eskatzen bada eta distantzia dela bitarte, lehentasuna duten beste eskatzaileek izendatutakoarekin bateraezina bada hura –hau da, jadanik beste eskatzaileek dokumentazioa aurkeztua izan eta horiek lehen paragrafoan adierazitakoa betzen badute- eskari hari ezezkoa emango zaio, eta azken horien tramitazioari emango zaio jarraipena.

Data berean bi lizentzia eskatuko balira, lehen paragrafoko baldintzak beteaz biak ere, bietatik lehentasuna izango du Sarrerako Erregistro Orokorrean zenbaki txikiena duen espedienteak.

9.1.- Jardueren kokapenari buruzko kontsultak.-

Sailkatutako establezimendu bat instalatzeko aukeraren gainean egindako kontsulta bati baiezkoa emateak ez du berez eta beste gabe jarduera bat instalatzeko eskubide itzuliezina sortzen, hau da, kontsulta horri erantzun zitzaionetik lizentzia eskatu bitartean dagoen epealdi horretan, aurreko artikuluan aurreikusitako gertaera ematen denean, izan ere kasu horretan, tramitera onartua izan den lizentziaren eskari-datak izango du erabateko lehentasuna.

9.2.- Eraiki berriak diren eraikuntzak

Eraiki berri diren eraikinei dagokionez, ez da tramitera onartua izango mota honetako jardueretarako eskaririk, baldin eta higiezinaren 1. Erabilerako Baimena eman baino lehenagoko datan aurkeztua bada. Tratamendu bera jarraituko da berrantolatu, handitu, etab. egingo diren eraikinetan, baldin eta 1. Erabilerako Baimena behar badute indarrean dagoen planeamenduaren arabera.

10. artikulua.- Jardueraren aldaketa

Baimenarekin instalatutako jarduera guztiek aukera izango dute, talde bereko edo azpiko taldera aldatzeko. Baina aldaketaren eskaria maila goragoko talde taterako denean, jarri nahi den jarduerako lizentziaren espedienteak, ondorio guztietarako, espediente berri bat bezala tramitatu beharra ekartzen du.

11. artikulua.- Aurkeztu beharreko dokumentazioa.

11.1.- Mota horretako jarduera instalatzeko aukeraren gainean kontsulta egiten denean, hurrengo dokumentazioa aurkeztu behar da:

-DOKUMENTAZIO GRAFIKOA.-

1/100 eskalako planoak, eta hor zehaztasunez, lokalaren kokapena azalduko da, eta jadanik lehendik daudenak kontuan harturik non kokatzen den.

-IDATZIZKO DOKUMENTAZIOA.-

a) Jarduerari buruzko txosten dedkriptiboa.

b) Eskatzailearen iritziz, jarduera zein taldetan sartuko litzatekeen adieraziko duen esan bidezko deklarazioa.

11.2.- Ordenantza honetan barne sartutako jarduera baten Irekitze eta Funtzionamenduko Baimena eskatzen bada, hurrengo dokumentazioa aurkeztu behar da:

- Jarduerari buruzko proiektuaren 3 ale, eskumena lukeen Ingeniariak, Arkitektoak, Ingeniari Teknikoak, Perituak, Arkitekto Teknikoak, Aparejadoreak, Dekoratzailak idatzia, eta horri dagokion profesionalen elkargoak onespena emana, zeinak, gutxienez, hurrengo dokumentazioa eduki behar duen:

- Jarduerari buruzko memoria, non horren deskripzioa egingo den, eta instalatuko den makineria eta horren indarra adieraziko den, eta bestalde, indarrean dagoen arautegia betetzen dela justifikatuko da, eta proiektuan proposatutako neurri zuzentzaileak zehaztuko dira.
- Dokumentazio grafikoa, eta beharrezko planoak aurkeztuko dira, eta lokalaren gaur eguneko egoerari buruzko argazki erreportajea, establezimenduaren bai barneko bai fatxadako edo fatxadetako egoerari buruzkoa.

12. artikulua. Hedapenak.

12.1.- Ordenantza honetan sartuta dagoen edozein establezimenduk handitzeak egin ahal izango ditu, baldin eta hurrengo baldintzok betetzen baditu:

a) Ez dira inola ere talde desberdinetarako jarri diren distantziak gaindituko, aurretik adierazi diren neurtzeko irizpideen arabera.

Jatorrizko jarduera eta eskatzen den handitzeen artean, beti komunikazio iraunkorra egongo da, horrela etorkizunean titularitate bat baino gehiago egon ez dadin.

c) Handitzeak ez dio bide eman behar, modu autonomo eta banandu gisa funtzionatzeko beharrezko elementuak edukitzeari.

d) Handitzeak ez badu, jatorrizko establezimenduaren sailkapena aldatzen, edo taldeko sailkapenaren aldaketa hori eskatuko lukeen kasuan, jardueraren Aldaketari buruzko 10. Artikuluan ezarritakoa bete beharko da.

12.1.1.- Baldin eta Eusko Jaurlaritzaren Lurralde Politika eta Garraiotako Sailaren ekainaren 11ko 171/85 Dekretua (85/06/29ko EHAA) indarrean sartu aurretik Udal baimena duten lokalak badira, Irekitze eta Funtzionamenduko baimena, eta Ordenantza honetan saturatuak bezala definitu diren eremuetarako ezarri diren distantziazko irizpideak betetzen ez badituzte ere, handitzeak egin ahal izango dituzte, beti ere handitze hori jatorrizko lokalak duen azalera baino handiagoa ez bada (handitzetik ondorioztatuko den lokalak hasierako azaleraren bikoitza edo txikiagoa izango du), baina hala ere, Irekitze eta Funtzionamenduko Udal Baimenaren eguneratzea izapidetu beharko dute indarrean dagoen arautegiari atxikirik.

12.1.2.- Handitutako lokalak, gainera, aurreko puntuko b), c) eta d) ataletako baldintzak bete beharko ditu.

12.2.- Ez da inola ere baimenik emango Ordenantza honetan barne sartutako jarduera bat beste batzuetan banandu dadin, edo horretatik beste atalak edo bulegoak bereizi daitezen, zeinak, bestalde aldi berean, Ordenantza honen eremu barruan sarturik egon daitezkeen.

13. Artikulua.- Baimenen iraungipena

13.1.- Jardueraren Baimena, Neurri Zuzentzaileak ezartzeko ondorioetarako soilik.

Jarduerako baimenari dagokion iraungipen-deklarazioaren espedienteari hasiera emango zaio, obrako lizentzia ematen zaionetik hasita, sei hilabete igaro direnean, eta oraindik horiei hasierarik eman ez zaienean, edo hasiera eman arren obra horiek eten egiten badira sei hilabete edo gehiagoko epean, ez badio behintzat Alkateak, aurretik interesatuak eskatu ondoren, aipatu obraren baimenari dagokion luzapena ematen.

Jarduerari dagokion baimenaren iraungipena gertatuko da, hasiera eman zaion espedientearen ebazpenetik horrela suertatzen bada, eta hor adierazi beharko da derrigorrez, ebazpena eman aurretik interesatuari audientzia eman zaiola.

13.2.- Irekitze eta Funtzionamenduko Baimena.-

Mota horretako jarduera baten Irekitze eta Funtzionamenduko Baimenaren iraungipenari buruzko deklarazio-espedienteari hasiera emango zaio, horrek funtzionatu gabe sei hilabete daramanean, eta hori kontatuko da, jarduera ez dela egiten jakiten den unetik.

Baimenaren iraungipen-deklarazioa legez ezarrita dagoen prozedurari jarraiki egingo da.

14. artikulua.- Udal ikuskapena eta zaintza

Mota honetako establezimenduen titularrek, jabeek edo arduradunek obligazioa dute Udaltzaingoiari edo Udal Ikuskatzaileei instalazioetara sarbidea emateko, ikuskapen eta kontrol funtzio horietarako dauden pertsonak horrela eskatutako bakoitzean.

14.1.- Aipatu arauak derrigorrez betetzea eskatuko da, mota horretako jarduera burutzekoan eskatuko den udal baimenaren bidez, eta bereziki bete beharko dira, Jarduera Gogaikarri, Osasungaitz, Kaltegarri eta Arriskutsuen Arautegiko 30. artikuluko 2. zenbakiko c) atalean adierazitako ondorioak saihesteko direnak edo horien ordeztan eman daitezkeen xedapenak. Halaber eska daiteke Eusko Jaurlaritzako Lurralde Politika eta Garraio Sailaren ekainaren 11ko 171/85 Dekretuan ezarritakoa bete dadila, dekretu horren bidez bestalde izaera orokorreko Arau Teknikoak onetsi ziren, hain zuzen ere, hiri-lurzoru urbanizagarrian ezarri daitezkeen jarduera gogaikarri, osasungaitz, kaltegarri eta arriskutsuetan aplikagarri direnak, baldin eta kasu horri aplikagarria balitzaio.

14.2.- Edozein pertsona natural edo juridikok salatu ahal izango du, Udalaren aurrean, ez-ohikoa den edozein jarduera edo instalazioen funtzionamendu, Ordenantza honetan barne sartuta daudenena.

Baldin eta ikuskapen eta kontroleko udal langileak, establezimendu batek edo hor burutzen den jarduerak Ordenantzan honetan adierazitakoa, edo horren xedapen gehigarri edo bat datozenetan adierazitakoa, ez duela betetzen egiaztatuko balu, Akta jasoko du eta horren kopia bat interesatuari entregatuko dio.

Dagokion zehapenaren kalterik gabe, eta interesatuari audientzia eman ondoren, Udalak epe bat emango dio jardueraren titularrari, horrek instalazioan beharrezko Neurri Zuzentzaileak ezarri ditzan, Eusko Jaurlaritzako Ingurumena Babesteko 3/98 Lege Orokorreko 64. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoari jarraiki.

Baldin eta ezinezkoa izango balitz aipatu neurri zuzentzaileak ezartzea, Administrazioak establezimendua ixteko agindua emango du, aipatu legezko testuan erabakitakoaren arabera.

14.3.- Administrazioak Ordenantza honetara egokitu daitezela exijitu ahal izango die, udalerri barrutiaren barruan, gaur egunean, funtzionatzen egon daitezkeen establezimendu guztiei, nahiz eta Ordenantza hau indarrean jarri aurretik hasita egon funtzionatzen, baldin eta ez balute hemen aurreikusitakoa beteko.

15. Artikulua.- Titularitate aldaketak

Titular berri batek jarduera ekonomikoa burutzen duela jakiten denean, Jardueren Irekitze eta Funtzionamenduko Baimenen Erregistroa aldatuko da, hala ere aurretik, lokalak ea Jardueraren eta/edo Irekitze eta Funtzionamenduko baimena baduen egiaztatuko da.

Baimenaren iraungipen-deklarazioa legez ezarrita dagoen prozedurari jarraiki egingo da.

16. Artikulua.- Terrazak

16.1.- Aurretik, Ostalaritzako establezimenduen Irekitze eta Funtzionamenduko Baimena izatea.

Ostalaritzako terrazak, bakar bakarrik, ostalaritzako jarduera baten Irekitze eta Funtzionamenduko baimena duten titularrek jarri ahal izango dituzte, nola diren taberna, kafetegi, jatetxe, txokolategi etab., hain zuzen, Ostalaritzako Establezimenduak Arautzeko Udal Ordenantza honen 2. artikuluan adierazita daudenak.

16.2.- Kokapenari dagozkion baldintzak.-

Ordenantza honetan ezarritako baldintzak balioko dute, bai udal jabari eta erabilera publikoko eremuan bai jabetza pribatu eta erabilera publikoko eremuetan, jarri nahi direnean.

Udal baimena, edozein kasutan, jabetzaren eskubidea hondatu gabe eta hirugarrenek izan ditzaketen eskubideei kalterik egin gabe, emango da.

16.3.- Prozedura.

Terraza bat instalatu nahi dutenek, eta ostalaritzako establezimenduen Irekitze Baimena edukitzeko baldintza aurretik betetzen dutenek, idatziz Udal honi eskatu beharko diote, eta eskari horretan batetik, ostalaritzako jarduera non kokatzen den, eta bestetik, terrazaren kokapen zehatza eta zenbat mahai, aulki eta eguzkitako jarri nahi diren adieraziko da, horrekin batera 1:100 eskalako planoak aurkeztu beharko da, eta hori terraza, aulkiak eta mahaiak non kokatu nahi diren adieraziko da.

Terraza jabetza pribatuko eremuan instalatu nahi denean, horri emandako baimenak ez du bide publikoa okupatzeagatik prezio publikoaren likidaziorik sortuko.

16.4.- Altzarien baldintzak

Ostalaritzako terrazetan egongo diren altzarien elementu guztiek behin-behineko izaera eta izaera desmuntagarria izango dute. Establezimenduaren kanpoaldean upelak edo barrikak jarrita dauzkaten establezimenduek, horien ordean, Mahai Altuak jarriko dituzte. Hauek dira ostalariak jarri beharko dituzten altzariak:

Metatu daitezkeen mahaiak: Horren armazoa duraluminio anodizatutako tutuaz egina dago, horrek altzairu herdoilgaitz damasko-antzeko mahai-tapa darama eta ertzak aluminioz landuak ditu, horren neurriak 60 x 60 cm. –karratua– edo 60 cm.ko diametroa –borobila– (D eta C erreferentzia, hurrenez hurren), edo antzekoa.

Metatu daitezkeen aulkiak: Horren armazoa duraluminio anodizatutako tutuaz egina dago eta, eserlekua eta bizkarraledkoa eskuzko ehundura duen mami plastikozkoa edo anodizatutako aluminiozko xaflak (A eta B erreferentzia) izango ditu, edo ezaugarri bertsukoa.

Estalkia: Egitura zur naturalarekin egindakoa, euritakoaren motakoa, eta eguzkitakoa olanazkoa izango da, horren diametroa 250 edo 300 cm. –borobila edo 300 x 300 cm. (I erreferentzia) edo bertsua.

Mahai altua: Horren armazoa duraluminio anodizatutako tutuaz egina dago, horrek altzairu herdoilgaitz damasko-antzeko mahai-tapa darama eta ertzak aluminioz landuak ditu, horren neurriak 60 cm. diametroan –borobila– eta 110 cm. altuan (F erreferentzia), edo bertsua.

Aulki altua: Horren armazoa duraluminio anodizatutako tutuaz egina dago eta, eserlekua eta bizkarraledkoa eskuzko ehundura duen mami plastikozkoa edo anodizatutako aluminiozko xaflak (E eta G erreferentzia; bizkarraledkorik gabea (H erreferentzia), edo ezaugarri bertsukoa.

Haize-babesak, Bereizgailuak, Lorontziak, Oihal hedagarriak eta beste instalazioak: Edozein kasutan izaera desmuntagarria izango dute, eta kasu bakoitza aztertu ondoren baimenduko dira, eta eskarian, horien neurriak eta ezaugarriak adierazi behar dira.

Horrek guztiak, ez dio kalterik eragiten, Udal honek terrazetarako beste mota bateko altzariak jartzeari onarpena ematea, publikoari eskainitako zerbitzuaren kalitatea hobetu dezaketen elementu berritzaileekin egin ezkeror.

16.5.- Terrazak mantentzeko baldintzak

Ostalariak, egunero gutxienez bi bider, garbitu behar dute beroietako bakoitzak erabili duen eremua.

Terrazetan erabiliko diren elementuek ez dute inolako publizitaterik eduki behar.

Hautsontziak urarekin egon behar dute.

Terrazetan ez da musikako aparailurik, bozgorailurik etab. jarriko.

Altzariak berriak izango dira, eta zaintza-egoera ezin hobean eduki beharko dira.

Altzariak lokal barruan gorde beharko dira egunero.

16.6. Ordutegiak

Terrazen ordutegia honako hau izango da:

-Igandetan
10:00etatik 22:00etara.

Astelehenetik ostegunera
12:00etatik 22:00etara

-Ostiral, larunbat eta jai-bezperetan
12:00etatik 23:00etara

Ekainaren 1etik irailaren 30a arte (udako ordutegia):

-Igandetan
10:00etatik 23:30era.

- Igandetik ostegunera
12:00etatik 23:30era

-Ostiral, larunbat eta jai-bezperetan
12:00etatik 00:30era

Herriko jaietan; aste santuko ostegunetik astelehenera arte; Inauterietako ostegunetik asteartera arte; eta gabonetan, abenduaren 21etik urtarrilaren 6ra arte, Alkateak 2 orduko luzapena eman dezake, hala ere, luzapen hori esan bidez erabaki beharko da. Bestela, aurretik adierazi den ordutegia aplikatuko da.

16.7 Arau-hausteak

Arau-hauste gisa hartuko dira Ikuskizun Publiko eta Jolas Jarduerak arautzen dituen azaroaren 10eko 4/95 Legearen 32., 33. eta 34. artikuluetan tipifikatuak daudenak, hutsegite oso larri, larri eta arinak bezala hurrenez hurren.

Ondoren adieraziko dugunak duen garrantziagatik zehazki aipaturik utzi nahi dugu, eta hori da, ordutegia ez betetzea, azaroaren 10eko 4/95 Legearen 34. g) artikuluan arau-hauste arina bezala datorrela jasorik, eta urtebetean bi arau-hauste egiteak arau-hauste larri bat suposatzen duela.

16.8.- Zigorrak

Arautegi honen aurkako arau-hausteak zigortu ahal izango dira espediente zigortzailea izapidetu ondoren, Ordenantza honetan adierazten den arabera tipifikatuak direnean, horrela, arau-hauste arina denean 1.200 eurora arteko isuna jarri ahal izango da, eta arau-hauste larria denean, 1.200 eurotik 30.000 eurora arteko isuna jarri ahal izango da, eta jarduera urte bete arte eten edo debekatu ahal izango da, eta gainera, urtebeterako lokala itxi eta jarduera bera garatzeko sei hilabete arteko gaitasun gabetzea ezarri.

Arau-hauste oso larrietan jarri beharreko zigorrak azaroaren 10eko 4/95 Legearen 35.1. artikuluan datoz zehaztuak.

Basauriko Udaleko organoak izango dira, Ordenantza honetako arau-hauste larri eta arinen ondoriozko zigor-espedienteak ireki, eta horiei ebazpena emateko organo eskudunak.

Eusko Jaurlaritza izango da Ordenantza honetan zehaztutako arau-hauste oso larriengatik eta larriengatik, 700 pertsona baino gehiagorentzako edukiera duten lokalak direnean, espediente zigortzaileari hasiera eman, bideratu eta ebazpena emateko organo eskuduna.

16.9.- Zigorra jartzeko prozedura

Zigorra jartzeko prozedura otsailaren 20ko 2/1998 Legearen 34. artikuluan eta hurrengoetan aurreikusitakoa izango da, horretan zehazten baita Euskadiko Autonomia Erkidegoko Herri Administrazioaren ahalmen zigortzailea.

17. Artikulua.- Ordenantza indarrean sartzea

17. Artikulua.- Ordenantza hau, horren iragarpena Probintziako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondorengo biharamunean, jarriko da indarrean, eta arau horri aurka egiten dioten edo kontraesanean dauden udal xedapen guztiak indargabetuta geratuko dira.

18. Artikulua.- Ordenantza indarrean egotea

18. Artikulua.- Ordenantza hau indarrean egongo da, Basauriko Udalak beste bat argitaratzen ez duen bitartean, edo eskumena duen goragoko erakundeak emandako maila goragoko xedapen batek honen edukiari aurka egin, edo hori zabaldu edo aldatzen ez duen bitartean.

19. Artikulua.- XEDAPEN IRAGANKORRA.-

Ordenantza hau, behin betiko onespena izaten duenean eta onspen horri dagokion iragarkia argitaratu ondoren, aplikagarria izango da inolako salbuespenik gabe, 18. artikulua xedatzen duen arabera, baimen eskarien espedienteetan, Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu ondorengo biharamunetik hasita.

20. artikulua.- XEDAPEN INDARGABETZAILEA.-

Indargabetuta geratzen da gaur eguneko Ostalaritzako Terraza eta Mahaitxoan Kokapen, Instalazio eta Ikuskapeneko Baldintzak Arautzen dituen Udal Ordenantza, horri 1999/04/13ko Osoko Bilkuran eman zion onespena Udalbatzak, eta aldatua izan zen 00/05/30eko eta 00/11/28ko osoko bilkurako erabakien bidez.

I. Eranskina.- PLANOAK

1-OINPLANO, AURKIBIDEA

2-OINPLANO, 1. zona

3-OINPLANO, 2. zona

Ostalaritza erabilerarako Jarduera Baimena lortu ahal izateko, jarraian, "saturatuak" deitutako eremuen barruan dauden kaleak edo kaleen zatiak zehazten dira, horietan aplikagarri dira Talde desberdinetarako ezarri diren lokalen arteko distantziak:

1. Zona – ARIZ - BENTA

- Agirre Lehendakaria

Bakoitiak 27tik 71ra

Bakoitiak 36tik 80ra

-Nafarroa

Bakoitiak 1etik 15era

Bakoitiak 2tik 18ra

-Kale Nagusia

Bakoitiak 3tik 17ra

Bikoitiak 6tik 28ra

-Autonomia

Bakoitiak 1etik 9ra

Bikoitiak 6tik 12ra

- Begoñako Andramari.

zenbaki guztiak

-Balendin de Berriotxo

zenbaki guztiak

-Pedro Bilbao

zenbaki guztiak

-Araba kalea

zenbaki guztiak

-Arabaren kalea

zenbaki guztiak

-Jose Garai

zenbaki guztiak

-Resurrección María Azkue

zenbaki guztiak

-Antonio Trueba

zenbaki guztiak

-Menéndez y Pelayo

zenbaki guztiak

-Particular Menéndez y Pelayo

zenbaki guztiak

-Galicia

zenbaki guztiak

-Doctor Fleming

zenbaki guztiak

-Hego

zenbaki guztiak

-Nervión

Bakoitiak 1etik 5era

-Ibaigane

Bakoitiak 5etik 9ra

Bikoitiak 8tik 10era

-San Biator

3 bakoitia

2 bakoitia

-Juan XXIII

1 bakoitia

Bikoitiak 2tik 12ra

2. Zona - POZOKOETXE

-Pozokoetxe

Bakoitiak 1etik 3ra

Bikooitiak 2tik 4ra

-Matxitxako

Bakoitiak 1etik 7ra

-Zumalakarregi

Bakoitiak 1etik 9ra

-Madrid

Bakoitiak 1etik 3ra

Bikoitiak 2tik 4ra

-Etxaun

Bikoitiak 2tik 6ra

-Zuia Ibarra


zenbaki guztiak

-Arratia Ibarra

zenbaki guztiak

-Debarroa

zenbaki guztiak



Áreas con saturación de locales
con destino a uso HOSTELERO

SUELO URBANO RESIDENCIAL

zona1 ARIZ-BENTA

zona2 POZOKOETXE


ORDENANZA MUNICIPAL REGULADORA DEL ESTABLECIMIENTO HOSTELERO

ANEXO I
NOVIEMBRE 2.009

PLANTA GENERAL

E=1 / 15.000

BASAURI





ORDENANZA MUNICIPAL REGULADORA DEL ESTABLECIMIENTO HOSTELERO

3

ANEXO I
NOVIEMBRE 2.009


E=1/2.000

PLANTA zona 2-POZOKOETXE

BASAURI

II. Eranskina.- TERRAZETAKO ALTZARIAK erreferentziarako irudiak

- **Metatzeko mahaia** (C eta D erreferentziak)
- **Metatzeko aulkia** (A eta B erreferentzia)
- **Estalkia** (I erreferentzia)
- **Mahai altua** (F erreferentzia)
- **Aulki altua** (E, G eta H erreferentzia)



Ref. 111

Altezza: 45 cm



Altezza: 35 cm

PER INFORMAZIONI
ALL'ACQUISTO



Altezza: 35 cm

PER INFORMAZIONI
ALL'ACQUISTO



Ref. 110

Altezza: 45 cm



Per informazioni e acquisti



Mod. A



Mod. B



Mod. C



Mod. D

Mod. E



Mod. F







►► BANQUETE MOD. MEDITERRANEO
MEDIA CRIMA TESSUTO (Ø 50)



Ref.: E

▼ MESA MOD. SUECIA ALTA 2T
▼ BASE ACERO
COLUMNA ALUMINIO
TABLERO INOX REPLICADO

Ref.: F







• • • • •
 • • • • •
 • • • • •



Ref.: 1

